

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

"Euskarri programaren inguruko azterketa etnografikoa"

Egilea

Garazi Garrido Marcos

Gradua

Gizarte Antropologia

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 4. Kalitatezko hezkuntza,
- 10. Desberdintasunak murriztea,
- 16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

Laburpena

2020ko martxoaren 14an euskal gizartean eman zen Covid-19aren osasun krisiak eraginda, indibidualtasun izaera eta sen onez pentsatutako gaitasuna erabat galdu zen, ordura arte ikusezinak ziren gizarte esparru batzuen eskubideak erabat urratuz, besteak beste, garun-paralisia edota antzerako asaldurak dituzten kolektiboenak. Ikusita, Covid-19aren izurriaren aurrean hartzen ziren erabakiak bat egiten zutela osasuneko determinatzaile sozialekin, aipaturiko gizartetalde honen ahotsa altxatzeko garaia heldu zela pentsatu nuen. Honekin batera, 2019. urtean ASPACE Gipuzkoak urtero-urtero bultzatzen duen euskarri programan boluntario gisa parte-hartzeko parada izan nuen. Horrenbestez, bertan parte-hartu izanak, beraiekiko adiskidetasun harreman bat eratzeko aukera izan dut, kolektibo honen egunerokotasuneko hainbat egoerez jakitun izanik. Gauzak honela, aurrez adierazitako programak beraiengan zein eragin izaten duen eta aldi berean, horren galerak -Covid-19 izurrituarekin emandakoa- gizatalde horretan zein ondorio sortu dituen ikertzeko jakin-mina sortu zitzaidan. Nolanahi ere, ikergai honek bidea eman dit nolabait aztertzeke komunitate bat, oro har, gure kulturaren antropologiaren ikerlerro nagusietatik kanpo gelditu dena; hots, orain arte antropologia gizartearentzat beharbada jaidura handiena zuten gai horiek ikertzera bideratu da, beste batzuk kanpoan utziz, horien artean, ezgaitasunari dagokionak.

2030 Agendaren GIH Ekarpinak

Oro har, uste dut, lan etnografiko hau hainbatetan ahaztuta dugun komunitate honen -garun-paralisia edota antzerako asaldurak dituzten kolektiboenak- gaitasunak goraipatzeko abiapuntu aparta izan litekeela, aldi berean, gure ezgaitasun horiei ere, ikusmira pixka bat ezartzeko aukera emanez. Zentzu honetan, idatzi honek bide eman dezake gizakiak bere gain duen kritikotasun sen hori suspertzeko eta modu horretan, 2030eko Agendaren Garapen Iraunkorrerako zenbait helburu bultzatzeko.